



Jerusalemgo kristau palestinarrek Ostiral Santuko prozesioan.

JACQUELINE ARZT / AP

Israelgo Armada Gazako base nagusiak uzten hasi da jada

Gazan eta Jerikon autonomia hilabete barru jarriko dela indarrean dio Israelgo Gobernuak

Okupazio indarrekin egunero enfrontamenduetan aritu arren, Israelgo base militar nagusien uzteak Gazako lurraldean aspaldian atzeman ez den euforia giroa eragin du herritarrengan, Palestinaren Askapenerako Erakunde (PAE) osora hedatu den euforia giroa. Ostiralean hasi ziren erretiratzen indar israeldarrak, eta apirilaren 13rako guztia amaituta egotea espero dute palestinarrek.

JERUSALEM

Palestinar askok ikusten zutena sinetsi ezinean ziren Israelgo Armadaren baseak zirenak kamioitzar batzuen gainean jarrita Gaza uzten zutela ikusita. Oraindik ikusten dutena ezin sinetsirik daudenak asko badira ere eta ge-

hiago ikusi beharra dagoela diotenek euforikoak lasaitzen saiatzen jarduten badute ere, azken egunetako enfrontamenduen ondorioz oraindik harriz beteta dauden Gazako kaleetan baikortasuna da nagusi.

1987an hasi zen Intifada-ko protagonista nagusi izan diren haurrak dira soldadu israeldarren erretiratzearekin poztu diren lehenbizikoak, eta lehengo harri jautiketa alde batera utzita, futbolearen hasi dira enfrontamendu gogorren eszenatoki izan diren kaleetan.

Bake prozesuan konfiantza galtzen ari baziren ere, ostiralean jada hamabi base erretiratu zirela ikusi ahal izan zuten Gazako palestinarrek. Atzo, larunbata, juduen jaieguna, atsedean hartu bazuten ere, gaur bertan beste base batzuk altxatzeari ekin behar zioten soldadu israeldarrek, joan zen irailaren 13an Washingtonen Israelgo Gobernuak eta PAEk hitzartutako akordioaren arabera, apirilaren 13rako erretiratze lanak amaituta edukitzeko.

AUTONOMIA HILABETE BARRU?

Gazatik soldadu israeldarrak erretiratzearekin batera, lurralde horretan bost urterako behin-behineko autonomiaarako Polizia palestinarreko lehenbiziko ehun kide asteartetik ostegunera bitartean iritsiko direla jakinarazi zuten atzo iturri palestinarrek. Ehun polizia horiek autonomia indarrean jarri eta gero Gazako segurtasunaz arduratuko diren 8.000 inguru polizia palestinarren aurrenekoak dira. Iasser Arafat PAEko buruzagiak esan zuenez, jada Palestinar Armada Popularreko mila kide prest daude polizi lanak egiteko, Jordanian urtebetez entrenatzen aritu baitira zeregin horretarako.

Egutegia betez gero, apirilaren 13an amaituko da israeldarren erretiratzea eta ordurako PAE ospakizun handiak ari da prestatzen. Joan zen otsailaren 25ean Zisjordaniako Hebron hiriko meskitan kolono judu batek egin zuten hilketaren ostean eta aste honetan bertan soldadu israeldarrek Gazan sei palestinar hil

ondoren oso eszeptiko ziren PAEko ordezkariak negoziaketa prozesuari buruz, baina ostegunean Israelgo Gobernuak ordezkariekin Hebrongo palestinarren zainketa nazioarteko begiraleen esku uztea hitzartu eta gero gauzak asko aldatu dira, une larrietan edozein aurrerapausok balio bikoitza duela frogatuz.

Hebrongo palestinarrei nazioarteko babes ematearekin batera, palestinarrek eta israeldarrek Gazako eta Jerikoko autonomiari buruzko negoziazioari berrekin zioten. Israelgo Gobernuak adierazi zuenez, bi aste barru sina lezake Gaza eta Jerikoko autonomiari buruzko behinbetiko akordioa eta hilabete barru jar liteke indarrean.

Clintonen Gobernuak ere bake prozesuan emandako aurrerapausoa bultzatu nahi du, eta ostiralean, Gazara Polizia palestinarra hedatzen hasiko dela iragarri zutenean, Washingtonek Polizia palestinarra EEBBetako Armadaren biltegietan dauden arma arinez hornitzea erabaki zuen.

Italia Estatu Federal bihurtzea proposatuko du Gobernu berriak

ERROMA

Italiako hurrengo Gobernuak erreferendumera eramango du egungo Errepublikako Estatu Federal presidentzialista bihurtzeko proposamena, Silvio Berlusconi enpresari-hautagaiak Lega Nordek jarritako baldintza onartu eta gero. «Hurrengo Gobernuaren ekintza behinen artean Konstituzio federal berri bat proposatzea izango da» adierazi zuen Forza Italiako buruzagiak, ostiralean Lega Nordeko ordezkariarekin bildu ondoren. Lega Nordek ezinbestekotzat jo zuen Italia Estatu Federal bihurtzeko lehentasuna, martxoaren 27-28ko hauteskundeetan garaile irten zen eskuineko koalizioko taldeen artean Gobernu osatzeko akordioa lortzeko. Forza Italiarekin eta Lega Nordekin batera koalizio horretan Alianza Nazionale faxistak ere hartu zuen parte.

Berlusconi federalisten asmo horretan amore eman du, Gobernu osatzeko negoziaketa aurrera egingo duelako esperantzarekin. Izan ere, Legak jarritako arazo ugariak gairatu beharra dauzka Forza Italiako buruzagiak. Horiematik handiena Silvio Berlusconi gobernuburutzaren hartzeko federalistek jarritako oztipoa izan da, ez baitzuten II Cavaliere lehendakari modura inolaz ere ikusi nahi, «negozioak eta interes publikoak ezin daitezkeelako batera bete».

Koalizioko gobernuburutzaren nork hartuko duen eztabaida beste egun baterako utzi zuten ostiralean Berlusconi eta Lega Nordeko ordezkariak egin zuten bileran. Elkarrizketa horretan Umberto Bossi Legako idazkari nagusiak ez zuen parte hartu. Atzo Italiako prentsak bat egiten zuten esaterakoan buruzagi federalistaren beste azpizoko bat dela bilera hartara ez agertzea, Gobernu osatzeko negoziazioa federalistek ahal duten guztia lortzeko nerbio gerra bihurtu dadin.

Pazientzia galtzetik urrun, Berlusconi onartu egin zuen Legaren exigentzia hori, zeinaren bidez Italia Errepublikako Federal bihurtu daitekeen, Konstituzioari zuzenketa bat eginez.

✓ Egutegia betez gero, hurrengo apirilaren 13an amaituko da soldadu israeldarren erretiratzea eta ordurako Palestinaren Askapenerako Erakunde ospakizun handiak ari da prestatzen.



UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA
NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA

25 URTEZ GORAKOENTZAKO SARRERA FROGAK EGITEKO DEIALDIA

25 urtez gorakoentzako sarrera frogetan matrikula egin duten ikasle guztiei dei egiten zaie, apirilaren 9an, larunbatean, goizeko 9etan, ikasgelategiaren Eraikineko 20. ikasgelan egingo den azterketara (Arrosadiako Campusak z/g). NANA eramatea ezinbestekoa da.